

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILA

Errolda eta Hauteskundeak

Hautesle errolda kontsultatzea

2019ko apirilaren 28ko Gorte Nagusietarako hauteskundeak direla eta, martxoaren 11tik 18ra bitartean, biak barne, udalerrri honetako hautesleen zerrendak kontsultatu ahal izango direla jakinarazten du Gasteizko alkateak, ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren -gerora urtarrilaren 28ko 2/2011 Lege Organikoak aldatua- 39.2. artikuluari jarraiki. Gasteizko Udaleko Biztanleen Erroldako administrazio-erregistroaren 2018ko abenduaren 28ko egoera hartu da kontuan errolda eguneratzeko.

Kontsultak egiteko ordutegia eta lekuak:

– San Martineko udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara, martxoaren 18an izan ezik bulegoak itxita egongo direlako.

– San Antonio kaleko 10.eko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 19:30era.

– Lakua, Hegoalde, El Pilar, Judimendi, Iparralde, Arriaga, Aldabe, Ibaiondo eta Salburuko gizarte-etxeetako herritarrei laguntzeko bulegoak: egunero, larunbat eta igandeak barne, 9:30 etik 20:00era.

– Ariznabarreko kiroldegiko Herritarrei Laguntzeko Bulegoan: astelehenetik larunbatera, 9:30etik 20:00etara; igandean, 9:30etik 14:30era.

– 010 telefonoa: astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara; larunbatean: 8:00etatik 14:00etara.

– Udalaren web-orrian: www.vitoria-gasteiz.org

Erroldako datuei buruzko erreklamazioak bulego eta epe horietan bertan aurkeztu ahal izango dira, aipatutako Lege Organikoaren 39.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko martxoaren 5ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE